



TECNALIAk aurreikusten du 2024rako % 26 handituko duela bere jarduera eta industrian eta gizartean duen eragina indartuko duela

- *Ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak abian jarri du bere Plan Estrategiko berria. Haren bidez, 140 milioi euroko diru-sarrerak lortu nahi ditu datozen 3 urteetarako, eta 1.525 laguneko taldea osatu.*
- *Plan berriaren helburua da inpaktu ekonomikoa eta soziala ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez indartzea, eta enpresen eta gizartearen eraldaketa-eragile izatea etorkizuneko erronketara egokitu daitezen, hau da, eraldaketa digitalera, fabrikazio adimendunera, trantsizio energetikora, mugikortasun jasangarrira, hiri-ekosistemara eta osasun pertsonalizatura.*
- *Horretarako, ekimen berriak jarriko dituzte abian, hala nola ETE-entzako eta mikroETE-entzako jarduera-plan bat, jabetza intelektual transferitzeko funts bat sortzea eta inpaktu-aliantezko eredu berri bat ezartzea.*
- *Gainera, bere irudia berritu du, eta zentroaren lidergoa islatzen duen marka sendoa bat plazaratu du, TECNALIAren lan-eremu diren bi esferak grafikoki irudikatzen dituen: inpaktu ekonomikoa eta soziala.*

Bilbo, 2021eko irailaren 30a. TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak bere Plan Estrategiko berria abiarazi du, arreta datozen hiru urteetan jarrita. Industrian eta gizartean duen inpaktua indartzea izango da helburua. Patronatuak onartu berri duen TECNALIA 2024 planak hobekuntza ekonomikoa eta soziala ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez indartu nahi du, eta enpresen eta gizartearen eraldaketa-eragile gisa posizionatu nahi du, haiek etorkizuneko erronketara egokitu daitezen; zehazki, erronka hauetara: eraldaketa digitala, fabrikazio adimenduna, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, hiri-ekosistema eta osasun pertsonalizatua.

Hala aurkeztu dute gaur, prentsaurrekoan. TECNALIAko zuzendari nagusiak, Jesús Valerok, honela adierazi du: “gure misioa ikerketa teknologikoa oparotasun bihurtzea da, eta ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobe bat eraikitzea. Aldi estrategiko berri bati ekingo diogu, ingurunean sortzen dugun inpaktua zabaltzeko, modu adimentsuan hazteko, gure bikaintasun teknologikoa areagotzeko eta pertsonentzako erakargarria den TECNALIA bat eraikitzeko, irekia eta konektatua eta, jakina, efizientea”.

Kuantitatiboki, helburua modu adimentsuan haztea da, jarduera % 26 handitzeko, 2024an 140 milioi eurora iritsi arte; 1.525 pertsonako taldea finkatzea; urtean, batez beste, 5 startup sortzea, eta jabetza intelektualaren salmentatik 8 milioi euroko diru-sarrerak lortzea. Horretarako, ekimen berriak jarriko dituzte abian, hala nola ETE-entzako eta mikroETE-entzako jarduera-plan bat, jabetza intelektual transferitzeko funts bat sortzea eta inpaktu-aliantezko eredu berri bat ezartzea.





Landu beharreko teknologia giltzarrien artean daude, besteak beste, balio handiko hidrogenoa, energia berriztagarri lehiakorrek edo elektrifikazioa, industriako mantentze-lan adimenduna, prozesuak optimizatzeko eta kalitatea kontrolatzeko adimen artifiziala, prozesuen automatizazioa eta robotizazioa, eraikuntzarako soluzio digitalak, azpiegituren kudeaketa adimentsua, ekonomia zirkularra eta ekomaterialak, digitalizazio adimendun baterako datu-espazioak, digitalizazio segururako pribatutasun-teknologiak eta bloke-kateko teknologia, teknologia kuantikoak eta, osasunaren arloan, elikagai osasungarri pertsonalizatuak, neuroingeniaritza eta robotika medikoa edo medikuntza birsortzailea.

Gainera, bere irudia berri du, eta zentroaren lidergoa islatzen duen marka sendo bat plazaratu du, “I” letra osatzen duten bi puntuen bidez TECNALIArekin jomuga diren bi esferak grafikoki irudikatzen dituen: arlo ekonomikoa eta soziala. Valeroren arabera, “bi puntu ortografikoak ere sinbolizatzen dituzte, gogoeta egiteko gonbidatzen dutenak eta soluzio eta ikuspegi berritzaile baten aurreko urratsa direnak, hala egiten baitie aurre TECNALIAk etorkizuneko erronkei, irtenbide berritzaileak emanez”.

Aldi berri bat

Aldi estrategiko berri bati ekin dio, beraz, TECNALIAk, Alex Belaustegui TECNALIAko lehendakariak azaldu duenez, “aurreko Plan Estrategikoa itxi ondoren, non, zailtasunak zailtasun, 2020an 113,6 milioi euroko diru-sarrerak lortu baikenituen. Eraitza hori I+Ga enpresetara transferitzeko estrategiaren ondorioa da, horretan aritu baita TECNALIA orain dela 10 urte sortu zenetik. Gainera, lankide ditugun enpresen kopuruak hazten jarraitu du aldi honetan guztian, eta horrek erakusten du krisialditik lehiakorrago ateratzeko berrikuntza-tresna gisa ikusten dutela TECNALIA. Hala, 750 enpresarekin baino gehiagorekin lan egin dugu 2020an; haietako % 75 ETEak dira, eta 25 aliantzatik gora duen sare bat sortu dugu”.

Belaustegui honela esan du: “TECNALIArekin I+G+Ban dugun jardueraren inpaktua maximizatzeko helburuan, ziklo estrategiko bati amaia eman diogu 2020an. Ziklo horretan, gure jarduerak zenbait dimentsiotan duen inpaktu positiboaren hazkundera egiaztatu ahal izan dugu, hala nola inpaktu ekonomikoa, zientifiko-teknologikoa, soziala edo ingurumenekoa”.

Kasu arrakastatsuak eta bikaintasun teknologikoa

Aurreko Plan Estrategikoaren oinarriak teknologia BPG bihurtzea eta bikaintasun teknologikoa izan ziren; plan horren bidez garatutako ekimenen artean, aipatzekoak dira Mugikortasun Iraunkorraren, Fabrikazio Adimendunaren, Trantsizio Energetikoaren eta Osasun Pertsonalizatuaren arloetan lortutako arrakastak; gainera, TECNALIArentzat proiektu bereziki garrantzitsuak eta estrategikoak izaten jarraitzen dute, eta 2024 Planerako bikaintasun- eta hazkunde-zutari nagusien artean daude.

Mugikortasun Iraunkorraren eta Fabrikazio Adimendunaren kasuan, TECNALIA aitzindaria izan da hirietan ibilbide laburrak modu autonomoan egiteko lehen aerotaxia garatzen. Gaur egun, garatzen jarraitzen du, aurki industrializatzeari begira eta tripulaziorik gabeko aireko ibilgailuen eremuan aurrera egiteari begira.



Trantsizio Energetikoari dagokionez, TECNALIAk *offshore* edo itsas zabaleko ingurune errealean saiakuntzak egiteko **Europako lehen laborategi flotatzailea** garatu du. HarshLab du izena, eta haren instalazioetan informazio zehatza eskuratu ahal izango da materialek, osagaiek eta ekipamenduek ingurune latz horretan zer jokabide izango duten aurreikusteko, luze irauten duten itsas zabaleko sistema energetikoak garatzeari begira. Duela gutxi, bertsio berri bat jarri du martxan *offshore* teknologien ikerketan aurrera egiteko eta industria horri lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Osasun Pertsonalizatuaren arloan, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera egindako lanari esker, industria farmazeutikorako Euskadiko lehen 4.0 laborategia jarri du martxan, Arabako Parke Teknologikoan. Instalazio berriek abangoardiako teknologia dute sendagai berriak garatzeko. Garapen farmazeutikoan 4.0 industriaren filosofia sartzea du helburu proiektuak. Hala, terapia pertsonalizatuagoak egin ahal izango dira, eta botiken kalitatea eta segurtasuna balio-kate osoan kontrolatu ahal izango da.

TECNALIARI buruz

TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentro bat da, Espainiako handiena, erreferentziakoa Europa osoan eta Basque Research and Technology Alliance aliantzako kidea. Enpresekin eta erakundeekin lankidetzan aritzen gara, beren lehiakortasuna hobetzeko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta era jasangarrian hazteko. Teknologiarekiko pasioa duten eta gizarte hobe bat eraikitze konprometituak dauden pertsonen esker lortzen dugu hori. Hauek ditu jarduera-eremu nagusiak: eraldaketa digitala, fabrikazio adimenduna, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, hiri-ekosistema eta osasun pertsonalizatua.

www.tecnalia.com

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Itziar Blanco (681 273 464)